

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

AGENDA 21eko Foroa

2009ko apirilaren 1ean egindako tailerraren akta

Legazpiko udaletxean

18:30etik 20:15era.

Gaia: Legazpiko merkataritza biziberritzeko Plana



● **Parte hartu duten pertsonak**

Azkeneko tailerra egin genuenetik astebete bakarrik igaro denean, gaur apirilaren 1ean berriro elkartu da Legazpiko Agenda 21eko Foroa, gure udalerrirako garrantzitsuak diren gaiak eta proiektuak lantzen jarraitzeko.

Horrela, 24 pertsona bildu gara eta ordu eta erdiko saioa konpartitu dugu, saio alai eta baliagarria. Eta hori guztia, ekarpenak egiteko eta lan egiteko zuek duzuen gogoari esker! Horregatik, beste behin ere, **eskerrik asko guztioi!!!**

Bixente Garmendia (Eako zinegotzia) ♦ Montse Vallejo ♦ Fernando Martínez de Albeniz ♦ Manuel Fernandez (Nagusilan) ♦ Junkal Fernandez ♦ Joxean Auzmendi (Ingurugela Legazpi) ♦ Jose Luis Cid ♦ Miriam Orozko ♦ Ane Odriozola ♦ Iban Odriozola (Ilinti) ♦ Arantxa Segurola (Haztegi Ikastola) ♦ Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskola) ♦ Asier Zaldúa (Noticias de Gipuzkoa) ♦ Floren Gutiérrez ♦ M^a Luisa Murillo (AMPA Olazabal institutua) ♦ M^a Jose San Vicente ♦ M^a Asun Gordo ♦ Bittor Larraza ♦ Agurtzane Elustondo (Lenbur) ♦ Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) ♦ Jon Erramun Uribeetxeberria (Agenda 21eko zinegotzia) ♦ Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) ♦ Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

● **Tailerraren helburua**



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Ze gai utzi dugu mahai gainean?

Gaur zehatza izan da gure eginbeharra: **Kontsumitzaile garen aldetik, Legazpiko merkataritzaren egoera gure ikuspuntutik aztertzen saiatu gara.**

Eta bi arrazoi izan ditugu horretarako:

- Batetik, Agenda 21eko Foroak aurtengo 2009. urtean landuko dituen proiektuen artean Legazpiko merkataritza, bere egoera eta biziberritzea aztertzea lehenetsi duelako.
- Eta bestetik, Legazpiko merkatariek gai hori aztertzea eskatu dutelako; Ainhoa Maiztegi andreak (Merkatariei laguntzeko Kabineteko UGGASako teknikaria) lantzen ari diren METAPLAN izeneko programaren gaineko hainbat datu adierazi dizkigu:

METAPLAN programa:

- Betiko merkataritzak lan sozio-ekonomiko garrantzitsua egiten du gure udalerrietan, aberastasuna eta bizitza sortzen duelako.
- Horregatik, Legazpiko Udalak, Ilinti merkatarien elkarteak eta UGGASAK hausnarketa prozesu bati eman diote hasiera. Prozesu horren helburua 3 urteko plan bat egitea da, Legazpiko betiko merkataritza indartzea eta biziberritzea ahalbidetuko duen plana.
- Lan horretan, METAPLAN eredia erabiltzen ari da. Eredua hori Gipuzkoako Merkataritza Ganberak eskainitako instrumentua da eta hausnarketa prozesu bat bideratzea da bere helburua. Programa horretan Legazpin merkataritzaren egungo eta etorkizuneko egoerarekin zerikusia duten agente guztiak ari dira parte hartzen.
- Eta eskema horretan, zein da Agenda 21eko Foroaren eginkizuna eta zertarako gaurko bilera? METAPLAN programa bideratzen ari den taldeak Legazpiko merkataritzarako funtsezkoa den agentearen ikuspegia aintzat hartu beharra dagoela uste du: kontsumitzaileak. Horrek ahalbidetuko du, nolabait, sektorearen egoerari buruzko "erradiografia".

Beraz, laburtuz, gaurko Agenda 21eko Foroan Legazpiko betiko merkataritza nola ikusten dugun aztertu dugu; horretarako, ondoko puntuan jaso ditugun hainbat gai izan ditugu kontuan eta horietan oinarritu gara.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● Legazpiko merkataritza aztertu dugu! Kontsumitzaile garen aldetik, nola ikusten dugu?

Ainhoa Maiztegi andreak gaiari buruz esan duena aintzat hartuta eta kontsumitzaile garelara ahaztu gabe, lanari ekin diogu!

Urratsez urrats, hainbat galdera erantzuten saiatu gara eta, horrela, sektoreari buruz bakoitzak duen "argazkitxo" ateratzea lortu dugu.

1. Zer erosten dugu Legazpin? Zer erosten dugu kanpoan?
2. Zergatik erosten dugu Legazpin? Zergatik kanpoan?
3. Bururatzen al zaigu Legazpiko merkataritza indartzeko/berpizteko proposamenen bat?
4. Zehazteko, eta hitz gutxitan, nola ikusten du bakoitzak merkataritza sektorea Legazpin?

Eta emaitzak? Hona hemen!

1. Zer erosten dugu Legazpin? Zer erosten dugu kanpoan?

Horixe izan da lehen pausoa eta, oro har, artikulua desberdinak non erosten ditugun zehazten saiatu gara. Baina generalizatzea ez da erraza, ezta egokia ere; horregatik, segidan eskainiko diren datuak orientagarriak dira eta gutxi gorabeherako joera adierazten dute. Hauxe da:

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Oro har LEGAZPI n	Bai LEGAZPI n eta bai KANPOAN	Batez ere KANPOAN
<ul style="list-style-type: none"> Elikagai freskoak (fruta eta barazkiak, arraina, haragia,...): bai ohiko dendetan, bai supermerkatuetan eta bai asteko azokan ere. Premia biziko artikulak eta egunerokoak (ogia, egunkaria...) Oihalak: Nagusien oinetakoak, emakumezkoen eta gizonezkoen arropa (baina baita kanpoan ere) Paper-dendako gauzak Belar-denda / botika Lurrinak Etixerako oihalak Konponketa tailerrak (autoak, motorrak,...) Lora-denda Bitxi-denda Optika Osagarriak Estankuak 	<ul style="list-style-type: none"> Etxetresna elektrikoak Liburu-denda (batez ere eskolako liburuak) Oihalak: Kirol-arropa, haurren arropak, gazteen arropak (oro har, Legazpin aukera gehiago dago neskenzako mutilentzako baino), nagusien arropak Iturginak (eskualdean) Ile-apaindegia (eskualdean) Informatika-teknologia Bitxiak 	<ul style="list-style-type: none"> Autoak, motorrak, bizikletak Haurrentzako artikulak (gurditxoak, sehaskak,...) Lorategirako gauzak Jostailuak Animaliak eta albaitariak Gauza goxoak / postreak Oihalak Asteko erosketa handiak (DIA, Carrefour,...) Oihalak: gazteen oinetakoak Jatetxeak Altzariak

Parte hartzaileek honako oharra egin nahi dute: azkeneko urteetako bilakaera ikusita, auzoetako denda txikiak (harategiak,.. eta antzekoak) gutxitu egin dira eta, aldiz, supermerkatuen kopurua eta kateetako denden kopurua igo egin da. Oro har, Legazpiko eskaintza komertziala dibertsifikatu egin da.

2. Zergatik erosten dugu Legazpin? Eta zergatik kanpoan?

Legazpin eta/edo kanpoan erosten ditugun produktuak identifikatu ondoren, horren atzean dagoen zergatia jakin nahi izan dugu. Zergatik erosten dugu Legazpin? Eta zergatik kanpoan? Taldea azpi-taldetan banatu da lan hori egiteko eta hona hemen taldearen hausnarketa:



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

LEGAZPIN erosteko arrazoiak	KANPOAN erosteko arrazoiak
<ul style="list-style-type: none">• Konfiantza:<ul style="list-style-type: none">• Produktuaren kalitatea (elikagai freskoak,...)• Erosi osteko zerbitzua (batik bat etxetresna elektrikoetan,...)• Harreman hurbila eta zuzena (dendariak ematen duten aholkularitza, azalpenak,...)• Erosotasuna eta hurbiltasuna• Herria egin nahi dugulako, herriko merkataritzaren aldeko apustua eginez ("hemen gastatu eta inbertitu")• Auzo-lagunekin egoteko aukera ematen duelako, hitz egin,....• Artikulu orijinalak (arropatan adibidez, kate handiek duten produktuetatik bereizi egiten delako)• Prezioan ere, eskaintza onak ere badaudelako.	<ul style="list-style-type: none">• Erosotasuna eta ordu-aukera gehiago gaur egun bizi dugun presarekin (adibidez, asteko erosketak egiteko autoa erabiltzen dugu eta dena batera erosten dugu,...)• Ezezagunak garelako (gauzak ikusteko, probatzeko,...) baina hori merkatariairen jarreraren arabera dago (Legazpin ere badaude horretarako aukera egokiak)• Eskaintza: Hainbat produktutan eskaintza handiagoa da kanpoan (gauza batzuk Legazpin ez daude), aukera gehiago eta prezio hobeagoan.• Erostea aisialdiarekin lotzen dugunez, kanpora joatean (merkataritza-gune batera, Donostiara,...) bi gauzak batera egiten ditugu. Eta horretan hainbat faktorek eragiten dute: klima, garraio publiko ona.• Publizitatea eta marketin (batik bat azalera handien eta kateen aldetik,...)• Aurreiritziak (hobeto geratzen delakoan: "kanpoan erositakoa da" edo kanpoan eskaintza hobeagoak daudelakoan,...)• Arazoi puntualak, adibidez kateetan eta azalera handiko dendetan produktua itzuli eta dirua itzultzen dutelako.

Gauza interesgarriak azaleratu dira eta, seguru gaude Legazpiko merkatariek egiten duten hausnarketa osatzeko baliagarriak izango direla. Eta gainera, benetan eskertzen dugu taldearen zintzotasuna. Eskerrik asko!

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

3. Bururatzen al zaigu Legazpiko merkataritza indartzeko/berpizteko proposamenen bat?

Taldetan lan egin dugunean, hainbat ideia otu zaizkigu eta, gure ustez, ideia horiek baliagarriak izan daitezke Legazpiko betiko merkataritza indartzeko eta berpizteko.

Denbora gehiago izanez gero, gauza gehiago aterako lirateke baina,... atera diren ideiak METAPLAN prozesurako baliagarriak izango direla uste dugu!

Legazpiko betiko merkataritza indartzeko/berpizteko hainbat proposamen:



- Aisialdiko ekintzak antolatzea eta, aitzakia horrekin, erosketak hemen egiteko aukera izango genuke (adibidez, hainbat larunbatetan,...).
- Denda desberdinen artean kudeatuta, erosketak etxera eramateko Zerbitzua sortzea (adibidez, elikagaiak erosten direnean).
- Produktu "bereziak" eskaintzea (gero eta gehiago eskatzen direnak), adibidez: produktu etikoak eta bidezko merkataritzakoak, produktu ekologikoak, herriko produktuak,...
- Bezeroen fideltasuna lortzeko estrategiak proposatzea (adibidez, baratzeko edo kontsumitzaileen eta produzitzaileen kooperatibetako produktuen gutxieneko kantitatea erosteko konpromisoa hartuz).
- Produktu-moten arabera, "deskontu-egunak" proposatzea: adibidez, asteartean "deskontuak oihal-dendetan", asteazkenetan, "elikagaietan",...
- Hainbat kasutan ordutegiak egokitzea (aurreratuz eta/edo atzeratuz).

4. Zehazteko, eta hitz gutxitan, nola ikusten du bakoitzak merkataritza sektorea Legazpin?

Galdera hori erantzuten bukatu nahi izan dugu gaurko tailerra. Norberaren errealitatea, ikuspegia, iritzia, esperientzia, sentimendua,... aintzat hartuta eta izenak esan gabe, merkataritzaren sektorea gure udalerrian nola ikusten dugun laburbildu dugu. Horrekin geratzen gara!



- Badaude dinamikoak eta eguneratuak eta badaude denda estatikoak eta gaurkotu ez direnak. Zerbait egiteko asmoa dagoela sumatzen da.
- Ahula (une hauetan). Iniziatibarekin. Merkataritzaren eta herriaren bizitza berreskuratzeko gogoarekin.
- Gogo handiarekin. Baina jendea zaila dela uste dut.
- Bezeroa pozik uzten saiatzen dira. Tratuak hobera egin du.
- Barietate gutxi produktuetan (batzuk). Tratu pertsonal egokia. Hobetzeko gogoarekin.
- Profesionala.

(hurrengo orrialdean jarraitzen du)

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

(aurreko orrialdetik dator)

- Ondo ikusten dut baina hobetu daiteke. Hainbat arlotan eskaintza gehiago beharko litzateke.
- Ona. Kezkatsu. Ez oso saiatua.
- Hemen denetatik eros dezakegu baina erreferentzi gutxi dugu prezioak eta kalitatea alderatzeko. Denda gutxi espezialitate bakoitzeko.
- Ondo, irudia zaintzen dute: erakustokiak, diseinua,....
- Azalera handiko dendekin lehiatzeko ahaleginetan jarrai dezatela. Maila ona.
- Bezeroarengana hurbiltzeko eta iristeko gogoarekin.
- Itxaropenarekin.
- Egitura bat falta da. Ongi.
- Hurbilekoa eta hobetzeko gogoarekin.
- Jendea erakartzen saiatzen da, baina ez gehiegizko propaganda eginez, ...
- Ondo (eskaintza dago, kalitatea, zerbitzu ona).

● **Eta hausnarketa eta ideia guztiak mahai gainean utzita,.... agur esaten dugu datorren apirilaren 28ra arte!**

Foroak merezitako atsedena hartuko du Aste Santuko oporretan. Baina **apirilaren 28an elkartuko gara berriro**, aparteko saio batean! Egun horretan gaztetxoekin konpartituko dugu gure denbora eta espazioa, **egun horretan Eskolako Agenda 21 izango dugu eta**.

Beraz, herriko ikastetxeetako neska-mutikoek Eskolako Agenda 21aren programa barruan aurten landu duten gaiaren berri emango digute (EKITATEA izan da gai hori). Berri emateaz gain, lortutako emaitzak, hartu dituzten konpromisoak eta Udalari egiten dizkieten eskariak jakinaraziko dizkigute.

Aurreko urteetan ez bezala, aurten ohiko ordutegian egingo dugu bilera hori (arratsaldeko 18:30ean), gaztetxoekin lanak eta ahaleginak gure babesa jasotzea garrantzitsua dela uste dugulako.

Beraz, apirilaren 28an aretoa txiki geratzea espero dugu eta elkarrekin ikasteko aukera izango dugunaren itxaropenarekin, agur esan behar dugu!

Ongi pasatu jai-egun hauek eta bueltan ikusiko dugu elkar!

Mila esker!